

Test Driven Development-en II. Coding Dojo proba

2014/04/30

Kata, Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko Informatika Graduko 3. mailako ikasleei zuzendu zitzaien eta, giro atseginean eta binaka, aurkeztutako arazoa TDD metodologiari jarraituz konpondu eta arazoa konpontzeko estrategiarik onenari buruz hausnarketa egin behar izan zuten, eSellerproko Ruben Egiluzen eskutik.

Saioan erronka txiki bat aurkeztu zen, proben bidez gidatutako garapen bat praktikatzeko: paradigma horretan probak programazioaren aurretik garatu behar dira eta ondoren eta birfaktorizatu, sistemak probak gainditu eta gero. Katan 3 iterazio egin ziren (30 minutu bakoitza).

Iterazio bakoitzean, lehenik eta behin, bikoteko kide batek balioztapen bat egiteko test bat idazten du, eta beste kideak funtzionalitatea implementatu behar du, testa gainditzeko. Testa gainditu eta gero bikotearen rola aldatzen dira, eta beste baldintza bati egin behar diote aurre. Iterazio bakoitzean bikotea aldatzen da, eta inplementatzen ari den irtenbidea komentatzen da, modu atseginean.

Kata horrekin, Informatikako Graduko ikasleek softwarearen ingeniartzako ezagutzak osatu dituzte, TDD metodologia aplikatuz, izan ere, paradigma hori gero eta interes handiagoa ari da sortzen industriaren ingurunean. Rubenek planteatutako erronkari eta bertan jarraitutako metodologiari esker kontzeptuak ikasi ahal izan dira, eta ikasleek oso harrera ona egin diote.



II. Coding Dojo proba